

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai dira eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	50 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderari.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ANONIMOTASUNA EZBAIAN DAGO

Ugari dira lagundutako ernalkuntza tratamenduak. Haurdunaldiak lortzeko bidea dira haurrak izateko zailtasunak dituzten bikote heterosexualentzat, ama bakarrik izateko hautua egiten duten andreentzat eta bi emakumez osaturiko bikoteentzat. Tratamendu horien herena-edo donazioz lortutako gametoen bidez egiten da; alegia, emaileek emandako hazia edota obuluak erabilia. Urteak dira ate hori legez irekita dagoela, eta ezaugarri bat da nagusi: emaileen anonimotasuna bermatzea. Gero eta usuago aipatzen da, ordea, 18 urte betetzean modu horretan jaiotakoei aukera eman behar zaiela, legez, jatorri biologikoaren berri izateko eta horren inguruan zer jakin nahi duten ebazteko.

Espanian eta Frantzian indarrean dauden legeen arabera, ezinezkoa da. Emailearen anonimotasuna urratzeko arrazoi bakarra donazioaren bidez jaiotako pertsonaren osasuna arriskuan egotea da. Gainerakoan, konfidentzialtasuna erabatekoa da. Hala ere, badira bestela egiten duten herrialdeak eta tartean, anonimotasunean jardun ostean, jarrera aldatu duten herrialdeak; esaterako, Erresuma Batua eta Herbehereak. Europako Kontseiluaren Biltzar Parlamentarioak agiri batean esanda dauka egokia litzatekeela, hemendik aurrera egiten diren tratamenduetan, anonimotasuna bertan behera lagatzea. Izan ere, zirriborratuta dago joera hori Europar Batasun osora zabaltzeko gomendioa.

Itziar Alkortak, EHUko irakasleak eta ernalkuntza lagunduan adituak, argi du zerk piztu duen eztabaida: «Orain hasi dira heldutasunera iristen eta horretaz hitz egiten anonimoak izan diren emaileen bidez jaiotako umeak. Gero eta gehiagok esaten dute kalte egin diela familia barruko sekretuak». Alkortak auzia behar bezala ulertzeko hitz garrantzitsu bat aipatu du: «sekretua». Espainiako Ugalkortasun Elkarteak gaiaz atera duen agirian bertan argi onartu du hori: «Ikerketa guztiek agerian uzten dute guraso gehienek ez dietela seme-alabei sorburuaren berri ematen». Are gehiago, elkarteak dokumentuan adierazi du programak sortu beharko liratekeela ernaltzeko

era horren atzean oraindik dagoen «estigma» arintzeko: gurasoei auziaren gainean mintzatzea errazteko. Baina, esan nahi ez duten gurasoek edo zama hori gainditu ezin dutenek anonimotasuna bermatzen duten legeen babesa dute sekretua betikotzeko. Gaur egun, agiri ofizialetan ez da deus jarri behar: «Legeak dio erregistro zibilean ezin dela inolako aipamenik egin ume horien jatorriari buruz», gogoratu du Alkortak.

«Emaileen identitatea». Alkortak esan du muga hori apurtzeak ez lukeela beldurrik eman beharko. «Aldaketa egiten bada, emakume eta gizon helduagoak izango dira emaileak, normalean familia dutenak», eta anonimotasunaren babesik gabe ere eroso senti daitezkeela uste du: «Prest egongo dira etorkizunean beren gametoetatik jaiotako umeak ezagutzeko». Aldaketak, halaber, gogoeta egitera behartuko lituzke era horretan haurra izan nahi duten sendiak. «Ezkutatu ezineko zerbait izango denez, gurasoek prestatu egin beharko dute horren berri emateko. Ernalkuntza tratamendu batean sartuz gero, beharrezkoa izango da, psikologikoki ere, ongi ulertzea zer den».

Alkortak argi du oraingo ereduak hobetu beharra duela. Adierazi du, anonimotasunaren auzia argitzeaz gain, gaur egun kliniketan dauden hainbat «kontrol falta» zuzendu behar direla. Espainiako legeriaren kasuan, adibidez, urraketak agerikoak direla dio, eta aspaldikoak: «Oso adierazgarria da emaileen erregistro ofizialik ez egotea; gauza bat da anonimotasuna zaindu nahi izatea; beste bat, berriz, legea ez betetzea. Erregistro horrek eginda egon behar zuen, eta duela 35 urte. Orain, Espainiako Ugalkortasun Elkarteak sortutako erregistro bat dago, borondatezkoa, baina kostata egin da hori ere». Aldaketak badatoz, arazo horiei ere erreparatu beharko zaiela nabarmendu du.

IRAOLA, A. Berria, 2020ko martxoa. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer da gero eta entzunagoa lagundutako ernalkuntzaz ari garela?**
 - a) Tratamendua nork hauta dezakeen, legez arautzeko premia.
 - b) Orain arte bezala, emaileen anonimotasuna bermatu beharra.
 - c) Adin-nagusitasunera helduta, jatorri biologikoa jakiteko aukera.
2. **Zein da anonimotasunaren auzia Europa osoan?**
 - a) Bazter uzteko gomendatzen bada ere, herrialdearen arabera da.
 - b) Urteetan bermatu ostean, gaur egun herrialde guztiek iritzia aldatu dute.
 - c) Pertsonaren osasunean eraginik ez badu, konfidentziasuna erabatekoa da.
3. **Zein da, Alkortaren ustez, jatorri biologikoa esan nahi ez duten gurasoen egoera?**
 - a) Ez dute inolako agiri ofizialetan adierazi behar.
 - b) Horren atzean dagoen zama arindu dute.
 - c) Erregistro zibilean aipatzera behartzen ditu legeak.
4. **Zer uste du Alkortak anonimotasuna babesik gabe egoteaz?**
 - a) Emaileek psikologikoki prestatu behar dutela egoera berriari aurre egiteko.
 - b) Sendiek prestatu egin beharko dutela umeei jatorriaren berri eman behar dietenerako.
 - c) Gurasoak, gogoeta egitera behartu arren, azkenean erosoago sentituko direla.
5. **Zer ondorio atara du Alkortak?**
 - a) Inolako erregistrorik ez dagoenez, abian jartzea ezinbestekoa dela.
 - b) Eredua egokia bada ere, kliniketan kontrolak areagotu behar direla.
 - c) Aspalditik ez dela betetzen auzi horren inguruan ezarritako legea.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

AURTENGO LANKIDETZA HITZARMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) 2020rako lankidetzahitzarmena sinatu dute gaur eta, horren bidez, foru-erakundeak dirulaguntza **6** du DIPCren «Emakumea eta Zientzia» programa berrira, emakumeek zientzian presentzia izan dezaten. Nazioarteko ikerketa-zentroa da DIPC eta horrelako zentroak Euskal Autonomia Erkidegoko interes zientifikodun eremuetan ezagutza sortzeko **7** dira, unibertsitateari lotuta daude eta ikerkuntza-**8** dute.

Horrela, Aldundiak eta DIPCk, adostutako jarduera-ildo berriaren eskutik, honako hauek sustatuko dituzte: nazioarteko garrantzia duten **9** zentrorako erakartzeko gai diren goi-mailako emakume ikertzaileak kontratatzea, emakumeak **10** diren talde edo proiektuetan doktoratu ondoko edo aurreko emakume ikertzaileak kontratatzea, emakumeek **11** laborategietarako edo ikerketa-unitateetarako ekipamendua erostea, eta zientziaren eremuan emakumeak bultzatzea xede duten beste ekintza batzuk **12**. Horren guztiaren helburua da emakumeek zientzian duten presentzia nabarmentzea eta emakume ikertzaileak, gazteak eta goi-mailakoak lurraldera hurbiltzea, beren **13** zientifiko guztia garatu ahal izateko eta orain dagoen genero-desberdintasuna konpentsatzeko.

Diputatu nagusiak adierazi duenez, egoerari buelta eman behar zaio; izan ere, genero-estereotipoek eta **14** batzuetan erreferente femininorik ez egoteak eragiten dute neskek zientziara ez jotzea, bereziki, diziplina jakin batzuetara. Horri gehitu behar zaizkio *kristalezko sabaia* eta emakumeek, gizonen aldean, ikerkuntza-ikasketetan gora egiteko dituzten **15**. Aldundiak badarama denbora luzea zientzia eta ekintzailtza bultzatzeko egiten dituen **16** «modu sistematikoan» errealitate horri aurre egiteko irizpideak **17**. Adibidez, Gipuzkoan Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareari laguntzeko programan –aurten 4,3 milioiz **18** –, proiektuen % 39 emakumeek gidatzen dituzte.

19, DIPCko presidentek gaineratu du fisikaren eremuan **20** emakume gutxi dagoela, eta, horren ondorioz, talentua eta ekarpen handiak egiteko **21** duen jende asko galtzen ari garela. «Zientziak ezin du egoera hori ontzat eman. Gure **22** da egoera horri buelta ematea; izan ere, zientzia eta, horrekin batera, gizarte osoa izango dira **23**, helburua lortzen baldin badugu». DIPCn dagoeneko badauzkate ikerketa-taldeetan eta Europako dirulaguntza duten proiektuetan **24** duten emakumeak, eta Aldundiaren babesari eta hitzarmen honi esker, bide horretan **25** jarraituko dute, zientzia-curriculumik onenak dituzten emakume ikertzaileak erakarriz eta babestuz.

<www.gipuzkoa.eus>, 2020ko martxoa. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) artatuko
 b) izapidetuko
 c) bideratuko
 d) lekualdatuko

7. a) kalapitak
 b) arauketak
 c) egiturak
 d) oihartzunak

8. a) estuasuna
 b) bikaintasuna
 c) malgutasuna
 d) gordintasuna

9. a) emanaldiak
 b) ebazpenak
 c) eragiketak
 d) egitasmoak

10. a) erpin
 b) iturri
 c) erro
 d) buru

11. a) lagatako
 b) gidatutako
 c) bozkatutako
 d) zuritutako

12. a) lorrintzea
 b) oldartzea
 c) finantzatzea
 d) kitatzea

13. a) eskumen
 b) aipamen
 c) ahalmen
 d) goresmen

14. a) jomuga
 b) kopuru
 c) sarbide
 d) esparru

15. a) gertutasunak
 b) itsutasunak
 c) ontasunak
 d) zailtasunak

16. a) ikustaldietan
 b) deialdietan
 c) aisialdietan
 d) indarraldietan

17. a) txertatzen
 b) agortzen
 c) atontzen
 d) uxatzen

18. a) hornitua
 b) burutua
 c) garatua
 d) suspertua

19. a) Bestela
 b) Dena dela
 c) Bestalde
 d) Aitzitik

20. a) hurrenez hurren
 b) batik bat
 c) osterantzean
 d) beharbada

21. a) gaitasuna
 b) itzala
 c) begirunea
 d) aldagaia

22. a) iradokizuna
 b) erantzukizuna
 c) emankizuna
 d) asmakizuna

23. a) eskudunak
 b) eskerdunak
 c) saridunak
 d) onuradunak

24. a) lidergoa
 b) emaria
 c) ahulezia
 d) xarma

25. a) igortzen
 b) birrintzen
 c) sakontzen
 d) metatzen

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA AZKEN ORRIALDEETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Espainiako Auzitegi Nazionalaren epai baten arabera, langileok kafea hartzen edota erretzen ematen dugun denbora ez da lanaldiaren barruan sartzen eta, ondorioz, berreskuratu beharra dugu.

Epaiak gogoeta eragin dizu eta herriko aldizkarian iritzia idaztea erabaki duzu.

GAIA: **KAFEA ETA ZIGARROA: LANALDIAREN BARRUAN?**

Langileen Estatutuaren arabera, sei ordutik gorako lanaldi jarraituan langileek hamabost minutuko atsedena hartzeko eskubidea daukate.



Aditu askok uste dute –langileen osasunari begira eta lan-giroa hobetze aldera– komeniko litzatekeela langileen atsedenaldirik areagotzea eta lanaldiaren barruan izatea.

Enpresa askotan atsedena hartzea oso normalizatuta dago eta lan-hitzarmenetan arautua dute etenaldiak lanaldiaren parte direla.

- Zer deritzozu Auzitegi Nazionalaren epaiari? Lan-baldintzen urraketa da?
- Badago abusurik edo erabilera desegokirik langileen aldetik?
- Zer abantaila dauka atsedenaldirik langileentzat? Eta enpresarentzat?
- Atsedenaldirik areagotu egin beharko lirateke? Zergatik?

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

[A eredua]

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Anonimotasuna ezbaian dago»

1.	C	2.	A	3.	A
4.	B	5.	C		

- **2. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «Aurtengo lankidetzaz hitzarmena»

6.	C	7.	C	8.	B
9.	D	10.	D	11.	B
12.	C	13.	C	14.	D
15.	D	16.	B	17.	A
18.	A	19.	C	20.	B
21.	A	22.	B	23.	D
24.	A	25.	C		